

**III. alezattia**

IRAGARKIA, egiteke dauden betearazteko prozedura egintzen jakinarazpenei buruzkoa. 9890

JAKINARAZPENAK, trafikoko zehapenak betearazteko prozeduraren arloan aurkeztutako errekurtsoak eta eskabideak ebazteko administrazio-egintza egiteke dutenak. 9902

**NEKAZARITZA, ARRANTZA  
ETA ELIKADURA SAILA**

IRAGARKIA, Arrantza eta Akuikultura zuzendaria hartutako erabakiak jakinarazteko. Itsas-arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legea us-tez urratzeagatik hasiera ematen zaie behean zehaztutako zehapen-prozedurei erabaki horien bidez. 9916

**Xedapen Orokorrak****JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****2374**

52/2008 DEKRETUA, martxoaren 18koa, Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordea arautzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2005eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpo Harremanetarako Estrategia onartu zuen, honako helburu hau betetzeko: Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako jarduketa-ildo nagusiak eta helburuak definitzea, eta horretarako beharrezko diren egiturak eta baliabideak egokitzea, beti ere, Europar Batasunean nahiz nazioarteko bestelako alorretan Euskadik duen eragin politikoa areagotzeko. Euskadiren kanpo harremanek behar-beharrezkoa dute bai Jaurlaritzaren jarduerak bai erakunde ezberdinak koordinatzea, oraingo zein etorkizuneko sinergiak aprobetxatzeko eta Eusko Jaurlaritzak zehaztutako politiken eta euskal ekonomia eta gizartearen gainontzeko erakunde eta eragileek burututako ekintzen erantzukizun bateratua areagotze aldera. Azken buruan, kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea areagotu nahi dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpo Harremanetarako Estrategiak kudeaketa eta jarraipena egiteko hainbat neurri aurreikusten ditu. Besteak beste, Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea abian jartzeko asmoa zehazten da -sailarteko batzorde hori Jaurlaritzaren ekintza koordinatzeko oinarrizko organoa izan dadin- baita Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordea abiatzeko ere, Eusko Jaurlaritzaren eta kanpo harremanak dituzten ekonomia zein gizarte eragile eta erakundeen artean komunikazio bidea izan da-

**Fascículo III**

ANUNCIO relativo a las notificaciones de actos procedimiento ejecutivo pendientes. 9890

NOTIFICACIONES pendientes de actos administrativos de resolución de recursos y solicitudes presentados en materia de procedimiento ejecutivo de sanciones de tráfico. 9902

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,  
PESCA Y ALIMENTACIÓN**

ANUNCIO por el que se notifican los Acuerdos del Director de Pesca y Acuicultura, que inician los procedimientos sancionadores abajo relacionados por presunta infracción a la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de Pesca Marítima. 9916

**Disposiciones Generales****PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****2374**

DECRETO 52/2008, de 18 de marzo, de regulación de la Comisión Interinstitucional de Acción Exterior.

El Consejo de Gobierno, en sesión de 15 de marzo de 2005, aprobó la «Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi», que tiene por finalidad última, «definir los objetivos y las grandes líneas de acción de la Acción Exterior del Gobierno Vasco, adecuando a las mismas, las estructuras y recursos que resulten necesarios, destinados a incrementar el impacto político de Euskadi dentro de la Unión Europea y en otros ámbitos internacionales». La Acción Exterior de Euskadi precisa de una necesaria coordinación tanto de la acción de Gobierno como entre las diferentes Instituciones, para aprovechar las sinergias de las acciones presentes y futuras y para intensificar la corresponsabilidad entre las políticas marcadas por el Gobierno Vasco y las acciones llevadas a cabo por el resto de instituciones y agentes económicos y sociales vascos. Se trata en definitiva, de aumentar la eficacia y la calidad de la Acción Exterior.

La «Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi» ya prevé una serie de medidas de «gestión y seguimiento». Entre las mismas, se especifican la puesta en marcha de una Comisión Interdepartamental de Acción Exterior, como órgano fundamental en el ejercicio de las funciones de coordinación de la acción de Gobierno, así como de una «Comisión Interinstitucional de Acción Exterior» como vía de comunicación entre el Gobierno Vasco y diferentes Instituciones, agentes económicos y sociales que operan en

din. Hartara, kanpo harremanetarako proiektuak, eza-gutzak, beharrianak eta interesak bateratu ahal izan-go dituzte.

Ildo horretan, Jaurlaritzako Lehendakartzaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen urriaren 3ko 187/2006 Dekretuan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari esleitutako zereginak egokitu ziren -besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremana programatzea, sustatzea eta koordinatzea esleitu zitzaion- eta ezarri zen Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren eta bere organoen egitekoek lurralde historikoen eta udalen zereginari eragiten badiete arau-teknikaren ikuspegitik lankidetzarako behar diren bideak ezarriko direla egitekoak egoki burutzeko.

Aurreko guztiaren ildoan, abuztuaren 31ko 127/2007 Dekretuaren bitartez Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea arautu zen; beraz, bidezkoa da orain Erakunde Arteko Batzordea arautzeari ekitea.

Horregatik guztiagatik, Lehendakartzak hala proposatu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko martxoaren 18an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### 1. *artikulua*.– Xedea.

Dekretu honen xedea da Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordea arautzea, Lehendakartzari atxikita, euskal erakunde ezberdinen arteko lankidetzaren organoa izan dadin eta etorkizuneko proiektuak batera ditzan kanpo harremanen alorrean.

##### 2. *artikulua*.– Eginkizunak.

Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordeari honako eginkizun hauek dagozkie:

1.– Kanpoko euskal harremanak aztertu, planifikatu, indartu eta sendotu, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpo Harremanen Estrategian bildutako helburuak nahiz proposa daitezkeenak erdiesteko.

2.– Jarduerak aztertu eta proposatu, Euskadik aukera izan dezan Europako eskualde mugimenduan eta nazioarteko erakunde eta foroetan parte hartzeko, baita mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren garatzeko ere.

3.– Ekonomia eta gizartearen erakunde eta eragileen jarduerak Europako erakundeekin -bereziki, Europar Batasunarekin eta Europako Kontseiluarekin- koordinatu eta jarduera horiek bultzatu.

4.– Jarduerak aztertu eta proposatu, Euskadik kanpoan dituen ordezkartzen bitartez, hainbat sektoreren interesak nahiz lurralde interesak defendatzeko eta kan-

el área de acción exterior, para la puesta en común de proyectos, conocimientos, necesidades e intereses en el ámbito de la acción exterior.

En este sentido, en el Decreto 187/2006, de 3 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno - Lehendakartzitza, se adecuaron las funciones atribuidas a la Secretaría General de Acción Exterior, asignándole entre otras, la programación, impulso y coordinación de la Acción Exterior del Gobierno Vasco, y estableciendo que cuando las funciones atribuidas a la Secretaría General de Acción Exterior y sus órganos incidan en la actividad de los Territorios Históricos y Ayuntamientos, se llevarán a cabo mediante el establecimiento de los oportunos cauces de cooperación y colaboración, desde la perspectiva de la técnica normativa.

Como consecuencia de todo lo anterior, mediante Decreto 127/2007, de 31 de agosto, se reguló la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior, por lo que procede ahora entrar en la regulación de la Comisión Interinstitucional.

En virtud de todo lo cual, a propuesta de la Presidencia, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 18 de marzo de 2008,

#### DISPONGO:

##### *Artículo 1.*– Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación de la Comisión Interinstitucional de Acción Exterior, adscrita a Lehendakartzitza, como órgano de cooperación y colaboración entre diferentes Instituciones Vascas, para la puesta en común de proyectos futuros en el ámbito de acción exterior.

##### *Artículo 2.*– Funciones.

Corresponden a la Comisión Interinstitucional de Acción Exterior las siguientes funciones:

1.– Analizar, planificar, impulsar y fomentar una Acción Exterior vasca, coordinada e integral, para alcanzar los objetivos recogidos en la «Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi», y los que se propongan.

2.– Analizar y proponer las acciones que garanticen la participación vasca en el movimiento regional europeo, las posibilidades de participación en foros y organismos internacionales y el desarrollo de la cooperación transfronteriza e interregional de Euskadi.

3.– Impulsar y coordinar las actuaciones de las diferentes Instituciones y agentes económicos y sociales con las Instituciones europeas, especialmente con la Unión Europea y con el Consejo de Europa.

4.– Examinar y proponer las posibilidades de actuación, en la defensa y promoción de los intereses multisectoriales y territoriales, a través de las Delegaciones

poko euskal etxe eta gizataldeei buruz ekintzak burutzeko.

5.– Kanpoko erakundeen ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoan daudenean, horren berri izan.

6.– Euskal kanpo harremanei buruzko prospekziolana garatu eta etorkizuneko helburu eta jarduketatara berriak proposatu, nazioartean antzemandako aldaketek aurrea hartzeko.

**3. artikulua.**– Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordearen osaera.

1.– Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordean ondoko hauek izango dira:

a) Batzordeburua: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren titularra izango da batzordearen burua, eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren ordezkaria ere izango da aldi berean. Titularrik ez badago, edo titularra kanpoan nahiz gaixorik badago, titularrik Batzordeko kideen artean izendatutakoak ordezkatu du.

b) Bokalak:

– Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat, sailburuorde mailakoa. Sail bakoitzeko sailburuak izendatuko ditu horiek. Lehendakariordetzako ordezkaria Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ordezkaria ere izango da. Ordezkariren bat ez badago, edo kanpoan nahiz gaixorik badago, gutxienez zuzendari maila duen batek ordezkatu du eta prozedurara berbera erabiliko da izendapena egiteko.

– Foru aldundiak ordezkatu, foru diputatu bana, eskumena duten organoak edo agintariak izendatuta. Foru diputaturen bat ez dago, edo kanpoan nahiz gaixorik badago, hark izendatutakoak ordezkatu du; gutxienez, zuzendari maila izan beharko du ordezkarako.

– Udalak ordezkatu:

- Hiru lurralde historikoen hiriburuetako alkateak. Alkateren bat ez badago, edo kanpoan nahiz gaixorik badago, hark izendatutakoak ordezkatu du; gutxienez, zinegotzi maila izan beharko du ordezkarako.

- Euskadiko udalen artean ordezkari handiena duen udal elkartereko burua. Udal elkarte horren burua ez badago, edo kanpoan nahiz gaixorik badago, hark izendatutakoak ordezkatu du; gutxienez, zuzendari maila izan beharko du ordezkarako.

c) Idazkaritza: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko pertsona bat izango da idazkaria; hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du botorik eman. Batzordeburuak izendatuko du idazkaria. Idazkaria ez badago, edo kanpoan nahiz gaixorik badago, batzordeburuak izendatuko du ordezkara.

de Euskadi en el exterior y las diferentes posibilidades de desarrollo de acciones en relación con los Centros Vascos - Euskal Etxeak y las Colectividades Vascas en el exterior.

5.– Conocer sobre la presencia en Euskadi de la representación institucional del exterior.

6.– Realizar una labor prospectiva sobre la Acción Exterior vasca, proponiendo nuevos objetivos y líneas de actuación futuras, con objeto de anticiparse a los cambios que se vislumbren en el orden internacional.

**Artículo 3.**– Composición de la Comisión Interinstitucional de Acción Exterior.

1.– La Comisión Interinstitucional de Acción Exterior estará integrada por las y los siguientes miembros:

a) Presidencia: la persona titular de la Secretaría General de Acción Exterior Presidirá la Comisión, quien a su vez actuará en representación de la Presidencia del Gobierno Vasco. En caso de ausencia, vacante o enfermedad, será sustituida por la persona en quien delegue, de entre las personas componentes de la Comisión.

b) Vocales:

– En representación del Gobierno, una persona representante de la Vicepresidencia y de cada uno de los Departamentos con rango de Viceconsejera o Viceconsejero. Estas personas serán nombradas por sus respectivos titulares de los Departamentos. La persona representante de la Vicepresidencia actuará también en representación del Departamento de Hacienda y Administración Pública. En caso de ausencia, vacante o enfermedad, serán sustituidas por personas con rango mínimo de Directora o Director, nombrados por el mismo procedimiento.

– En representación de cada una de las Diputaciones Forales, un o una Diputada Foral nombrada por el órgano o autoridad competente. En caso de ausencia, vacante o enfermedad, serán sustituidas por las personas en quienes deleguen, con rango mínimo de Director o Directora.

– En representación de los Ayuntamientos:

- Las o los Alcaldes de las capitales de los tres Territorios Históricos. En caso de ausencia, vacante o enfermedad, serán sustituidas por las personas en quienes deleguen, con rango mínimo de Concejal o Concejala.

- El Presidente o Presidenta de la Asociación de Municipios más representativa de los municipios de Euskadi. En caso de ausencia, vacante o enfermedad, serán sustituidas por la persona en quien delegue, con rango mínimo de Director o Directora.

c) Secretaría: una persona de la Secretaria General de Acción Exterior, que actuará como tal, con voz pero sin voto. El o la Secretaria será nombrada por la persona titular de la Presidencia de la Comisión. En caso de ausencia, vacante o enfermedad, será sustituida por quien nombre la Presidencia.

2.– Batzordeko kide guztiak karguarengatik izango dira batzordekide, eta automatikoki utziko diote kide izateari kide izendatuak izateko kontuan izandako ezauzgarri hori galtzen dutenean.

3.– Egiten dituzten jarduerengatik edo jakituria berezia izateagatik aholkuak eman ditzaketen beste pertsona batzuk deitu ahal izango dira Batzordearen bilkuretara, gaiak hala eskatzen duenean. Hitz egiteko eskubidea izango dute baina ezin izango dute botorik eman.

**4. artikulua.**– Batzordeburuaren eginkizunak.

5. artikuluan aurreikusitakoez gain, honako eginkizun hauek beteko ditu batzordeburuak:

a) Bere gain hartu organoaren ordezkari gorenaren.  
b) Batzordearen ohiko zein ezohiko bilkuretarako deia egin eta gai zerrenda zehaztu.

c) Batzordearen bilkuren buru izan; eztabaidak zuzendu eta moderatu; eztabaida horiek bertan behera utzi, bidezko arrazoirik izanez gero; eta, oro har, behar diren ahalmenak erabili bilkurak ondo burutzeko.

d) Berdinketak erabaki kalitatezko botoaren bitartez.

e) Batzordeak hartutako erabakien akta eta ziurtagiriei oniritzia eman.

f) Batzordeburu izateari dagozkion beste eginkizun guztiak bete.

**5. artikulua.**– Bokalen eginkizunak.

Batzordeko bokalek honako eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Bilkuretara joan eta eztabaidetan parte hartu.  
b) Egoki iruditzen zaizkien proposamenak aurkeztu Batzordeari.

c) 7.a) artikuluan aurreikusitako ekimenaz baliatu.

d) Botoa emateko eskubidea erabili eta botoaren zentzua adierazi, baita boto partikularra eman eta horren arrazoiak azaldu ere.

e) Kide ez diren pertsonak Batzordearen bilkuran izan daitezela proposatu, gai zerrendakoei buruz aholkuak eman ditzaten.

f) Bokal izateari dagozkion beste eginkizun guztiak bete.

**6. artikulua.**– Idazkariaren eginkizunak.

Idazkariari honako eginkizunak dagozkio:

a) Bilkurak prestatu.  
b) Batzordeak egindako bilkuren aktak jaso.  
c) Batzordeak izapidetzen dituen espediente guztiak bultzatu eta horien jarraipena egin, eta, hala behar duenean, azpibatzerdeak eskuartean ditueni buruzko informazioa bildu.

2.– Todas las personas miembros de la Comisión lo serán por razón de su cargo, y cesarán automáticamente con la pérdida de la condición en virtud de la cual fueron nombrados.

3.– Cuando los asuntos así lo aconsejen, podrán ser convocadas a las sesiones de la Comisión, con voz pero sin voto, otras personas que por el cargo que ostenten, por sus actividades o conocimientos puedan ofrecer asesoramiento.

**Artículo 4.**– Funciones de la Presidencia.

Además de las previstas en el artículo 5, la persona titular de la Presidencia tiene las siguientes funciones:

a) Asumir la superior representación del órgano.  
b) Convocar las sesiones de la Comisión, tanto ordinarias como extraordinarias y fijar el Orden del día.

c) Presidir las sesiones de la Comisión, dirigir las deliberaciones, moderar el desarrollo de los debates, suspenderlos por causas justificadas y, en general, ejercitar las facultades precisas para el adecuado desarrollo de las sesiones.

d) Dirimir los empates con voto de calidad.

e) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos adoptados por el órgano.

f) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a la condición de la Presidencia.

**Artículo 5.**– Funciones de las personas vocales.

Las personas vocales de la Comisión tienen las siguientes funciones:

a) Asistir a las sesiones y participar en los debates.  
b) Presentar a la Comisión las propuestas que estimen oportunas.  
c) Ejercer la iniciativa prevista en el artículo 7.a).

d) Ejercer su derecho al voto, expresando el sentido del mismo, así como formular voto particular y los motivos que lo justifican.

e) Proponer la presencia de personas no miembros de la Comisión, siempre que la asistencia de estos o estas sea de interés para un mejor asesoramiento sobre los temas a tratar en el Orden del día.

f) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a la condición de Vocal.

**Artículo 6.**– Funciones de la Secretaría.

Corresponde a la persona titular de la Secretaría las siguientes funciones:

a) Preparar sesiones.  
b) Levantar las actas de las sesiones de la Comisión.  
c) Impulsar y realizar seguimiento de cuantos expedientes se tramiten en la Comisión y recabar la información sobre el estado de los que se encuentren atribuidos a la Subcomisión, en su caso.

d) Batzordeak burututako jarduerak jasotzen dituen dokumentuak artxibatu eta zaindu.

e) Batzordeak hartutako erabakien ziurtagiriak egin.

f) Batzordeburuak agintzen dizkion kudeaketa eta gestio ekintza guztiak egin.

g) Idazkari izateari dagozkion beste eginkizun guztiak bete.

**7. artikulua.**– Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordearen jarduna.

1.– Batzordeak osoko bilkura eta azpibatzerdeen bidez jardungo du. Batzordeak ohiko osoko bilkura bat egingo du urtean gutxienez; bilkura bereziak ere egin ditzake, batzordeburuak bere kabuz edo kideen heren batek eskatuta horretarako deia egiten duenean. Bilkura berezia egiteko eskaria idatziz egin beharko da eta aztertu nahi diren gaien proposamen arrazoitua agertu beharko da idazki horretan.

2.– Osoko bilkurak azpibatzerde tematikoak eratu ahalko ditu, aztertu nahi diren gaiak egoki prestatu eta jarraitzeko. Osoko bilkurak izendatuko ditu azpibatzerde bakoitzeko kideak; osoko bilkurarenak ez diren maiztasun eta deialdiak erabiliko dituzte azpibatzerdeen bilerak egiteko. Azpibatzerde horien akta, lan eta ondorioak Batzordeari aurkeztuko zaizkio hurrengo bilkuran horien berri emateko.

3.– Osoko bilkura nahiz azpibatzerdeak eratuko bada, kideen gehiengo osoa agertu beharko du bilkuran. Batzordeburua eta idazkaria ere nahitaez egon behar dute.

4.– Bilkura deia, gai zerrenda eta guzti, gutxienez hamabost egun lehenago egingo du batzordeburuak. Epe hori saihestu ahal izango da, behar bezala arrazoitutako premia badago.

5.– Batzordeak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak. Berdinketa gertatuz gero, batzordeburuaren botoak erabakiko du.

6.– Bilerak guztien akta egingo da. Aktetan nortzuek hitz egin duten, gai zerrenda eta bilkura non eta noiz egin den zehaztu behar dira; aztertu diren gai nagusiak, bozketa-moduak eta bozketen emaitzak, eta erabakiak ere azaldu behar dira. Batzordekideek, hala nahi izanez gero, aktan jaso ditzakete boto partikularrak.

7.– Aktak idazkariak sinatuko ditu, batzordeburuaren oniritziarekin, eta bilkura berean edo hurrengoan onetsiko dira.

**8. artikulua.**– Administrazio kudeaketa eta aurrekontua.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokio Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordeari jarduteko behar duen laguntza tekniko eta administratibo guztia ematea. Kanpo Harremanetarako

d) Archivar y custodiar los documentos en que consten las actuaciones desarrolladas por la Comisión.

e) Expedir certificaciones de los acuerdos adoptados por la Comisión.

f) Realizar actos de gestión y coordinación que se sean encomendadas por la Presidencia.

g) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Secretaría.

**Artículo 7.**– Funcionamiento de la Comisión Interinstitucional de Acción Exterior.

1.– La Comisión actuará en Pleno y en Subcomisiones. El Pleno se reunirá como mínimo una vez al año en sesión ordinaria, y con carácter extraordinario, cuando la convoque la Presidencia, por propia iniciativa o a petición de un tercio de los miembros. La solicitud de sesión extraordinaria se realizará por escrito y deberá contener la propuesta motivada de los asuntos a tratar.

2.– El Pleno podrá crear Subcomisiones temáticas para realizar una preparación y seguimiento adecuado de los diferentes temas a tratar. Nombrará a las personas que formen parte de cada una de las Subcomisiones, las cuales se reunirán con una periodicidad diferente y en diferente convocatoria que el Pleno. Las actas, trabajos y conclusiones de dichas Subcomisiones serán elevados a la Comisión para su información en la siguiente convocatoria.

3.– Tanto el Pleno como las Subcomisiones quedarán constituidas con la asistencia de la mayoría absoluta, entre los que deberá encontrarse necesariamente la persona titular de la Presidencia y la Secretaría.

4.– Las convocatorias, con el orden del día, las realizará el Presidente o Presidenta con una antelación mínima de 15 días. Este plazo podrá ser soslayado por razones de urgencia debidamente motivadas.

5.– La Comisión aprobará los acuerdos por mayoría simple. En caso de empate decidirá el voto del Presidente o Presidenta.

6.– En cada sesión se levantará acta en la que se indicarán al menos, las personas intervinientes, orden del día, circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, puntos principales de la deliberación, forma y resultados de la votación y el contenido de los acuerdos, pudiendo hacer constar en acta los votos particulares.

7.– Las actas son firmadas por el Secretario o Secretaria, con el visto bueno de la Presidencia se aprobarán en la misma o en la siguiente sesión.

**Artículo 8.**– Gestión administrativa y presupuesto.

Corresponde a la Secretaría de Acción Exterior prestar la asistencia técnica y administrativa necesaria para el funcionamiento de la Comisión Interinstitucional de Acción Exterior. Los gastos de funcionamiento de la

Idazkaritza Nagusiaren aurrekontuez ordainduko dira Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordearen funtzionamendu gastuak.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lebenengoa.*— Dekretu honek indarra hartzen duen egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, izendatu beharko dira Batzordeko kideak, 3. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Epe hori igarotzen denean, kide horiek eratuko dute Batzordea.

*Bigarrena.*— Ebazpen honetan nahiz lehen aipaturako dekretuan jasota ez dagoen guztian Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazioaren Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko dio Kanpo Harremanetarako Erakunde Arteko Batzordeak. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen.

#### AZKEN XEDAPENAK

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko martxoaren 18an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## Agintariak eta Langileria

### Oposaketak eta Lehiaketak

#### EUSKO LEGEBILTZARRA

2375

ERABAKIA, Eusko Legebiltzarraren 2008rako enplegu publikoaren eskaintza (08/25.01.00.0035)

Mahaiak, 2008ko apirilaren 1eko bileran, indarrean dagoen Langileen Estatutuaren 19. artikuluko 1, 2 eta 3. paragrafoetan adierazitakoaren arabera, erabaki du onestea enplegu publikoaren eskaintza, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 1a.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria,  
IZASKUN BILBAO BARANDICA.

Comisión Interinstitucional de Acción Exterior serán con cargo a los créditos presupuestarios de la Secretaría General de Acción Exterior.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*— En el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la entrada en vigor del presente Decreto deberá procederse al nombramiento de las personas vocales que componen la Comisión, conforme a lo establecido en el artículo 3. Transcurrido dicho plazo la Comisión quedará constituida con tales miembros.

*Segunda.*— En lo no previsto en este Decreto la Comisión Interinstitucional de Acción Exterior se regirá por lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2008.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## Autoridades y Personal

### Oposiciones y Concursos

#### PARLAMENTO VASCO

2375

ACUERDO relativo a la oferta de empleo público del Parlamento Vasco para 2008 (08/25.01.00.0035).

La Mesa, en su reunión del día 1 de abril de 2008, conforme a lo dispuesto en el artículo 19, apartados 1, 2 y 3 del vigente Estatuto de Personal, ha acordado aprobar la oferta de empleo público, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco y en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2008.

La Presidenta del Parlamento Vasco,  
IZASKUN BILBAO BARANDICA.